



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/03/17

Bizkaiko Foru Aldundiak alegazinoak aurkeztu ditu REEren Güeñes-Itsaso goi tentsinoko linearen aurrean

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak Batzar Nagusietan, EH Bilduk eskatutako agerraldian, gaur aurreratu dauenez, Foru Aldundiak alegazinoak aurkeztu ditu REEek Güeñes eta Itsaso artean luzatu gura dauen goi tentsinoko linearen eraikuntza proiektuaren aurrean. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako saila izan da, hain zuzen be, parte batean foru titulartasuneko mendiak zeharkatzen dituan proiektuan aldaketak egitea proposatu dauena.

Joan dan zezeilaren 7an BOEan argitaratu zan proiektuak bete dau daborduko alegazinoen epea, diputatuak jakinarazo dauenez, eta Aldundiak zein “udal batzuek”, gure lurraldea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen dauen eta, Gobernu Zentralarentzat azpiegitura estrategikoa danez, “derrigorrezko desjabetzeak eta igaroteko zortasunak” eragingo leukezan linearen aurrean aldaketak aurkeztu ditue. Iruarrizagak ez dau argitu alegazino horreen eukia, eta gai horren barri Elena Unzuetak zuzentzen dauen sailak emongo dauela adierazo dau.

Foru Arduradunak azaldu dauenez, Aldundia aldaketak ari da negoziatan jatorrizko proiektuan Gobernu Zentralagaz, “Erabilgarritasun Publikoko Adierazpena” egin aurretik, hori dalako “derrigorrez onartu behar dan” desjabetze prozesua martxan jarri aurreko azkenengo pausua. Iruarrizagak esan dauenez, bere sailak ez dau ezelango alegazinoak aurkeztu, sail horrek kudeatzen dauen ondareari jagokonez.

Gai hori zala eta diputatuaren agerraldia eskatu dauen EH Bilduko David Lopategi batzordekideak esan dau penagarria dala Ogasuneko arduraduna erantzun “teknikoa” emoteko agertzeraz mugatzea, erantzun “politikoa” emon beharrean, bere taldearen eretziz “beharrezkoa ez dan” eta “enpresa baten interesei erantzuten deutesen” goi tentsinoko linearen eraginak jasango dituen udalerriri asko eta “milaka” herritar dagozanean. Lopategik azpimarratu dauenez, azpiegiturak ez deutso “barruko behar” bati erantzuten, enpresa elektrikoek energia esportetako daukien asmoari baino, “larregizko elektrizidade ekoizpena” dagolako. 2016an, elektrizidadearen kontsumoaren gehieneko pikoia “40.489” megawattekoa izan zan, eta Estaduan “105.000” megawatt sortzeko ahalmena dago, adierazo dau.

Javier Ruiz PP taldeko bozeroalea linearen alde agertu da, horren helburua “baliabideak eta sistema hobetzea eta hornidurea eta eraginkortasuna bermatzea” eta “Frantziagaz dagon inter-loturea hobetzea” dala esanez, Europako Batzordeak kide diran Estaduen arteko energiaren joan-etorria hobetzen behartzen dauelako, “inter-loturearen %10era heldu arte”. Gainera, esan dauenez, proiektuak Ingurumen Eraginaren Adierazpena jaso dau, eta gune babestuak alde batera itzi ditu.

ARAU PROIEKTU BIK BATZORDEAREN TRAMITEA IGARO DABE

Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak, Aldundiak aurkeztu dituan Foru Arau Proiektu bi aurkeztea, eztabaidatzea eta bozkatzea be onartu dau. Batzordeko taldeek erabagi dabenez,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

bidea zabaldu jako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemea Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko bagilaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeke Foru Arauaren Proiektuari. Proiektuak ez dau Batzarretako taldeen zuzenketa-eskerik jaso. EH Bildu eta Podemos taldeak abstenidu egin dira, eta gainerako taldeek testuaren aldeko botoa emon dabe.

Beste alde batetik, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrerako Foru Aldundiak planteau dauen erreformaren alde agertu dira. Azkenengo erespenak sei aldaketa jaso ditu, saioaren hasieran hiru talde horreek aurkeztu dituen hiru zuzenketa-eske transakzional eta beste hiru zuzenketa-eske partzial (EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen bat, PP taldearen beste bat eta EH Bilduren beste bat) onartu ostean.

MEZENASGOAREN INGURUKO ARAUZKO ALDAKETEA LASTER

Horrez gain, “kultureagaz lotutako ekitaldiak finantzatzeagaitik irabazi asmorik bako erakundeentzako zerga-hobarrien inguruko” urtarrilaren 24ko 5/2017 Foru Dekretuaren gaineko informazioa emoteko Podemos taldeak eskatu dauen agerraldian, Ogasun eta Finantzetako diputatuak, mezenasgoa arautzen dauen foru araua “derrigorrez eguneratu behar dala” iragarri dau. Iruarizagak esan dauenez, “azterketa” bat egin ostean, bere sailak, beste lurralde historiko biakaz “koordinauko” dan aurreproiektu “integrala” prestatuko dau.

Bere esku hartzean, gaur egungo arautegian oinarrituta “lehentasunezko” aitorpenen zerrendan sartzeak enpresentzat eta zergadunentzat dakarzan abantaila ekonomikoen kopuru batzuk emon ditu Iruarizagak. Zergadunak, irabazi asmorik bako erakundeen eta mezenasgoko pizgarri fiskalen araubide fiskala arautzen daben Foru Arauen barruan dagozan erakundeei emondako kopuruen “%20ko” dedukzioa egiteko eskubidea dauka. 2015eko datuek erakusten dabenez, 2015ean Ogasunak, “18,3 milioi euro” hartzen ebezan “18.438” proposamen onartu ebazan, eta horrek “3,6 milioi euroko kostu fiskala” euki eban. Diru-kopuru horretatik, “2,8 milioik” Soziedadeen Zergan izan eben eragina, eta “800.000 eurok” PFEZn.

EZEZKOA IRUZURRAREN KONTRAKO BEHATOKI INDEPENDENTEARI

Saioak, Talde Mistoaren arauz besteko proposamen bat be jasotzen eban. Proposamen horretan, Euskal administrazio publikoengandiko ‘Iruzurraren Behatoki’ independentea inoizkoan sortzeko “hartu-emonak eta akordioak bultzatzeko” eskatzen jakon Aldundiari, Euskadiko iruzur fiskalaren inguruko txostena prestatu eben eta Batzar Nagusietako beste batzorde batean aurkeztu eben unibersidadeko hiru katedradunek aholkatu eben moduan.

EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeak ekimenaren kontra agertu dira, daborduko badagolako erakunde bat, Iruzur Fiskalaren kontrako Burrugarako Batzordea, eta bertan Euskadiko hiru ogasunetako eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek parte hartzen dabelako, eta erakunde barriari emon gura jakozan egiteko “berberak” ditualako. “Antzekotasuna ia erabatekoa da”, adierazo dau Ekain Rico sozialistak. Hiru taldeek ezezkoa emon deustie baliabide eta aurrekontu gehiago eskatzen dauen beste erakunde bat sortzeari, “bikoiztasunean ez jausteko”. Javier Ruiz PPko bozeroalearen eretziz, Behatokiak “legediagaz erlazionautako zalantzak” erakusten ditu, zergadunen datu babestuak erakunde independente bati laga behar jakozalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

EH Bilduk, bere aldetik, erakunde hori osatzea “derrigorrezkoa” dala adierazo dau, oraindino iruzur boltsa garrantzitsua dagolako Euskadin. Katedradun adituen berbetan, boltsa hori 2.000 milioi eurokoa izan daiteke. Alternatiba moduan, dagon batzordea sindikatuen, patronalaren eta unibersidadearen partaidetzara zabaltzeko eskatu dau Arantza Urkaregik. Iruzurraren kontrako burrukan inbertiduten dan dirua “danontzako irabazia da”, gehitu dau Podemos Bizkaiako Asun Merinerok, eta “dagozan baliabide guztiak, eta baliabide barri batzuk” mahai gainean jartea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/03/2017

La Diputación foral de Bizkaia presenta alegaciones a la línea de alta tensión Güeñes-Itsaso de REE

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha avanzado hoy en las Juntas Generales, en una comparecencia solicitada por EH Bildu, que la institución foral ha presentado alegaciones al proyecto de construcción de la línea de alta tensión que Red Eléctrica (REE) pretende desarrollar entre Güeñes e Itsaso. El responsable foral ha señalado que ha sido, en concreto, el departamento de Sostenibilidad y Medio Natural quien ha propuesto modificaciones en un proyecto que atraviesa en parte montes de titularidad foral.

El proyecto, publicado en el BOE el pasado 7 de febrero, ha consumido ya el plazo de alegaciones, según ha informado el diputado, y tanto la Diputación como “algunos ayuntamientos” han decidido presentar modificaciones a una línea que atraviesa el territorio de este a oeste y que vendría a producir “expropiaciones forzosas y servidumbres de paso” al ser una infraestructura estratégica para el Gobierno central. Iruarrizaga no ha desvelado el contenido de estas alegaciones, desviando esta cuestión al departamento que dirige Elena Unzueta.

El responsable foral ha explicado que el Gobierno estaría negociando cambios en el proyecto original con el Ejecutivo central antes de que se produzca la “Declaración de Utilidad Pública”, último paso antes de que arranque el proceso expropiatorio que sería de “obligada aceptación”. Iruarrizaga ha informado también de que su departamento no ha presentado ninguna alegación en lo que toca al patrimonio que gestiona.

El juntero de EH Bildu, David Lopategi, quien había pedido su comparecencia por esta cuestión, ha lamentado que el responsable de Hacienda se limite a comparecer para dar una respuesta “técnica” en lugar de “política”, cuando hay muchos municipios y “miles” de ciudadanos afectados por una línea de alta tensión que su grupo considera “innecesaria” y que responde a “intereses de una empresa”. Lopategi ha señalado que la infraestructura no obedece a una “necesidad interna” sino a la pretensión de las empresas eléctricas de exportar energía debido a una “sobreproducción eléctrica”. En 2016, el pico máximo de consumo eléctrico se situó en “40.489” megavatios, cuando el Estado tiene una capacidad para generar “105.000”, ha apuntado.

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha salido en defensa de la línea argumentando que pretende “optimizar los recursos y el sistema, garantizar el suministro y la eficiencia”, y “mejorar la interconexión con Francia”, puesto que la Comisión Europea obliga a mejorar el flujo de energía entre los Estados miembros hasta alcanzar “un 10% de interconexión”. Ha sostenido, además, que el proyecto tiene Declaración de Impacto Ambiental y ha sorteado zonas protegidas.

DOS PROYECTOS DE NORMA PASAN EL TRÁMITE PARLAMENTARIO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La comisión de Economía y Hacienda ha abordado también la presentación, debate y votación de dos proyectos de Norma Foral presentados por la Diputación. Los grupos junteros han acordado dar vía libre al proyecto de Norma Foral de adaptación del sistema tributario del Territorio Histórico a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, que no ha recibido enmiendas de los grupos junteros. EH Bildu y Podemos se han abstenido y el resto de grupos han votado a favor del texto.

Por otra parte, PNV, PSE-EE y PP han apoyado la reforma planteada por la Diputación de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. El dictamen final recogerá seis modificaciones a través de la aprobación de tres enmiendas transaccionales presentadas al inicio de la sesión por estos tres grupos, y otras tres enmiendas parciales (una de PNV y PSE-EE, otra del PP, y una última de EH Bildu).

PRÓXIMO CAMBIO NORMATIVO SOBRE MECENAZGO

Asimismo, en una comparecencia solicitada por Podemos Bizkaia para que la Diputación informase del Decreto 5/2017, de 24 de enero, “referido a incentivos fiscales a entidades sin fines lucrativos en la financiación de eventos culturales”, el diputado de Hacienda y Finanzas ha anunciado la “necesaria actualización” de la norma foral que regula el mecenazgo. Iruarrizaga ha señalado que tras realizar un “análisis” su departamento elaborará un anteproyecto “integral” que será “coordinado” con los otros dos territorios históricos.

En su intervención, Iruarrizaga ha ofrecido algunas cifras de las ventajas económicas que para empresas y contribuyentes supone incluirse en el listado de declaraciones “prioritarias” según la normativa actual. El contribuyente tiene derecho a una deducción del “20%” de las cantidades donadas a las entidades incluidas en las Normas Forales reguladoras del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo. Según datos de 2015, Hacienda aceptó “18.438” propuestas por valor de “18,3 millones de euros” que tuvieron “un coste fiscal de 3,6 millones de euros”, de los cuales “2,8 millones” afectaron al Impuesto de Sociedades y “800.000 euros” al IRPF.

NO A UN OBSERVATORIO INDEPENDIENTE CONTRA EL FRAUDE

La sesión incluía el debate de una proposición no de norma del grupo Mixto para instar a la Diputación “a impulsar contactos y acuerdos” para la futura creación de un Observatorio del Fraude “independiente” de las administraciones vascas, tal y como recomendaron los tres catedráticos universitarios que elaboraron el informe sobre el fraude fiscal en el País Vasco y que presentaron en otra comisión de Juntas Generales.

PNV, PSE-EE y PP han tumbado la iniciativa aduciendo que ya existe un ente, la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal, en la que participan técnicos de las tres haciendas vascas y del Gobierno vasco, que prácticamente tiene las “mismas” funciones que las que se quería otorgar al nuevo ente. “La coincidencia es casi absoluta”, ha dicho el socialista Ekain Rico. Los tres grupos se han negado a crear una nueva entidad con más recursos y presupuestos “para no caer en duplicidades”. A juicio del portavoz del PP Javier Ruiz, el Observatorio presenta “dudas de legalidad” debido a la cesión de datos protegidos de contribuyentes a un organismo independiente.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, EH Bildu ha considerado que su creación es “imprescindible” debido a que todavía queda una importante bolsa de fraude en el País Vasco que los expertos catedráticos cifraron en 2.000 millones de euros. Como alternativa, Arantza Urkaregi ha pedido que se abra la comisión existente a la participación de sindicatos, patronal y universidad. El dinero invertido en la lucha contra el fraude “son beneficios para todos”, ha añadido Asun Merinero de Podemos Bizkaia, quien ha pedido que se pongan “todos los medios y algunos nuevos”.